

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

170. zenbakia**Data 2013-09-06****3 orria**

4 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazioa

FORU ADMINISTRAZIOKO ETA FUNTZIO PUBLIKOKO DEPARTAMENTUA

Nekazal Laborategiko analisten lanpostuak aldi baterako betetzeko lan poltsan parte hartzeko onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrenda.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

FORU ADMINISTRAZIOKO ETA FUNTZIO PUBLIKOKO DEPARTAMENTUA

Nekazal Laborategiko analisten lanpostuak aldi baterako betetzeko lan poltsan parte hartzeko onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrenda.

Departamentuko foru diputatuak, honako agindu hau eman du 2013ko abuztuaren 26an:

Nekazal Laborategiko analisten lanpostuak aldi baterako betetzeko lan poltsan parte hartzeko onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda 2013ko uztailaren 10eko Foru Aginduaren bidez onartu zen (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, 2013ko uztailaren 18ko 137. zenbakian argitaratu zen, baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren iragarki taulan ere, helbide elektroniko honetan, hain zuzen: <https://www.gfaegoitza.net>).

10 laneguneko epea ezarri zen onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenden aurkako erreklamazioak aurkezteko.

Goizane Lizarralde Atristain, Nerea Prego Olave, Aitziber **Beizama** Garrastazu, eta Olatz Goikoetxeaundia Usandizagak ezarritako erreklamazioak aztertu dira. Lauak baztertuak izan ziren eta prozesuan sartzea eskatzen dute.

Baztertzeko arrazoia da, hain zuzen ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren plantillako lanpostuak betetzeko eskatzen diren titulazio akademikoak beraren Lanpostu Zerrendan zehaztuta daudela, oinarritzat hartuta zer ezartzen duen 13. artikuluan eta hurrengoetan 1989ko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoarenak, eta bat baitatuz lanpostu bakoitza sartuta dagoen sailkapen taldearekin, baita lanpostua betetzeak berezko dituen betebeharrak eta funtzioekin ere. Kasu honetan, Nekazal Laborategiko analista lanpostua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lanpostu Zerrendan definituta dagoen bezala, egungo C sailkapen taldekoa da (C1 azpitaldekoa), hots, Batxilergo mailako edo maila Teknikoko titulazioak eskatzen dituen taldekoa, eta lanpostu hori betetzeko eskakizuna da Kimika adarreko LH2 titulua edo baliokidea izatea. Beraz, deialdi horretako oinarriek eska dezaketen titulazio bakarra da Lanpostu Zerrendak eskatzen duena, hots, goi mailako heziketa ziklo bati dagokiona, ez lizentzia bat, edo, gaur egun, gradu akademikoa. Eta, hitz batean, Epaimahai Kalifikatzaileak deialdiko oinarriak bete beharra daukanez, deialditik baztertu ditu lau erreklamatzailerik, ez dutelako oinarrietan eskatutako titulaziorik.

Azaldutako guztiarengatik, foru diputatu honek

EBATZI DU

Lehenengo. Ezestea Goizane Lizarralde Atristain, Nerea Prego Olave, Aitziber **Beizama** Garrastazu eta Olatz Goikoetxeaundia Usandizaga hautagaiek baztertuak izanaren aurka aurkeztutako erreklamazioak, ez dutelako deialdiko 2. oinarriko c) atalean eskatutako titulurik, Biologiako lizentziatua baita lehenengoa, eta Kimikako lizentziatua, berriz, beste hirurak.

Bigarren. Behin betikotzat jotzea onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda hura, aipatutako hedabideetan 2013ko uztailaren 18an argitaratua.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitalpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsua aurkezteko foru diputatu honi, argitarapenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Donostia, 2013ko irailaren 3a.—María Yeregui, Departamentuko idazkari teknikoa. (8344)